



INAZIO DEUNA

JUAN BAXURKO

IÑAZIO DEUNA

aita Donosti agurgarriari.

Baxurto



JOSEFA MARÍA SETIÉN ARAMBURU
Pasaia, 9 - Brunenea-3
Tel. 64 23 28
HONDARRIBIA

IÑAZIO DEUNA

AITA SAN IÑAZIO'REN BIZITZA

BERTSOTAN JARRIA

JUAN BAXURKO

APAINGARRIAK: AYALDE'RENAK

NIHIL OBSTAT :

Candidus Gordoá, S. I.

Cens. Ord.

IMPRIMI POTEST :

Franciscus Ibiricu, S. I.

Præp. Prov. Cast. Orient.

NIHIL OBSTAT :

J. Urrutia

Cens. Eccles.

IMPRIMATUR :

Sancti Sebastiani, 24 maii 1955

Dr. Iosephus Sudupe

Vicar. Gener. Diœc. S. Sebastiani

IRAKURLEARI

*Euskaldun maitea: Begi aurrean dauka-
zun liburutxo au, AITA SAN IÑAZIO'REN
BIZITZA, benetan garaiz eta mugonez da-
torkigu. Gure Patroi Aundia il zaneke 400'
garren urtea datorren urtean osatzen da; au
dala-ta, gure Santu aundiaren Bizitza euskal-
dunen artean gero ta geiago azaldu ta zabal-
tzea, berezko gauza da.*

*Iñazio Loiola'n jaio zaneke 400 urteak,
eta gero Jainkoa'gana biurtu zaneakoak, eta
oraindik berritsu Jesu'ren Lagundia sortu za-
nekoak, eta iru aldi oietan egindako jai ede-
rrak ondo gogoan dauzkate euskaldunak.*

*Oraingo jaiak, len esan bezela, Iñazio il
zaneke 400'garren urteak dakarzki. Datorren
urteko Uztaila'ren 31'garrenean beteko di-
ra 400 urte oiek; baña, erabaki danez, aur-
tengo San Iñazio'tan asiko dira, Jauna la-*

gun, laugarren mendeko edo eunurteko jai ospatsuak, urrengo urte osoan jarraituz.

Begira ba zein ederki datorren gure artera Bizitz polit au. Bertsotan egiña dago, ta itz-lauz ere laxter agertuko da beste bizitz luzeago bat. Batek besteren berri ezer jakin gabe, iru jesulagun ari ziran Iñazio Deunaren bizitza euskeraz idazten; alkarren berri jakitean ordea, geiena egin zunari utzi diote eginbear ori beste biak.

Eskutan daukazu au Baxurko olerkariak egin digu, eta yayo egin ere. Baxurko ezta jesulaguna jantziz, baña bai biotzez. Baxurko au Bidasotarra degu, Ondarrabin jaioa, ta urte askotan Urazun bizi dana. Nork eztu ezagutzen gure Baxurko?

Igaz atera zigun beste liburu polit bat: JESUS izena duna. Gure Jaunaren Bizitza bertso ederretan. Liburu zoragarri orrek on aundia egingo du noski gure artean. Ain ederra, ain goxoa, ain xamurra baita! Lekuona apaiz jaun eta euskaltzain ospatsuak ona zer dion, Jesus'en Bizitza'ko bertso ederretaz:

“Ederrak gaiz, ederrak neurritz; ederrak azalez, ederragoak mamiz... Eta guztiontzako neurrian. Guztiok atsegin askoz kantatzeko eran”.

Or daukazu, irakurle maite, Lekuona jaunak bikain adierazita, gure Baxurko yayoaren trebetasuna.

Liburu artan bezela, oraingo ontan ere, bertso oiek kantatu egin bear dira. Ezta ordea liburu guzia erabat eta etengabe irakurri edo kantatu bear. Abestu itzazu bertso oiek aldizka ta txolartietan, pixka bat irakurri, beste bat kantatu. Euri geldia bezelaxe, goxo-goxo sartuko zaizkitzu biotz ondoraño. Egizu saioa ta ikusiko dezu!

Ori atsegin zaie euskaldunei ta ortik ateratzen dute onura ugari. Gogora zazu, bestela, gure bertsolari bikañak (esaterako: Xenpelar'ek) euskaldunen biotzetan sortzen zuten zirrara.

Bejondeizula, Baxurko! Zapirain'ek Santa Jenobeba'ren bizitza bezela, zuk ezagutueraziko dezu ondoen euskaldunen artean IÑAZIO GURE PATROI AUNDIA'ren Bizitza.

Eskerrak zuri ta, lan ontara bultza zaitulako, eskerrak baita ere La Salle'ko Berriotxoat'ar Balendin Anai jatorrari.

J. L'ko MUXIKA A.

Ara nun diran

1'rik - 122'raño }
 128'rik - 137'raño }
 146'rik - 171'raño }



AITA SAN IÑAZIO'REN BIZITZA


Loiola'n

- ¹ EUSKAL-ERRIAN izandu dira
 seme jakintsu ta onak,
 Jesus maitean dotriñagatik
 beren bizia emanak.
 Kezkarik gabe txokoan utziz
 lur ontako ontasunak,
 otoitza eta apaltasuna
 izanik beren lagunak.

2 Gizon berexi aietako bat
 Iñazio ospatsua,
 Eliz-legeen gordetzallea
 Jesus'en anai zintzoa,
 zeru doaiez apaindutako
 irakasle jakintsua,
 gutxik alako argia zuan
 Deun Iñazio'k zentzua.

3 Urola ibaian ertzean dagon
 leku alai politean,
 dago Loiola, jauregi ederra
 zugaitz da lore artean;
 milla lareun da larogei eta
 amaikagarren urtean,
 antxe jaio zan Deun Iñazio
 gela aberats batean.

4 Gaztetatikan guda lanetan
 guziz gogotsu zan asi,
 Zeruko Jaunak egun bat arte
 ala ziolako utzi;
 bere etsaiak naiz gogor izan,
 etzan ez joaten igesi,
 bildurra zer zan ill arteraño
 iñoiz etzuan ikasi.



Iruña'n

5 Iruñan zeuden gudari batzuk
 erria gorde naiean,
 Iñazio're antxe bulartsu
 gudari aien artean;
 beren etsaiak indar gogorrez
 gau-ta-egun joaz aurrean,
 sua ta garra zeriotea,
 dana erre bearrean.

6 Eguna juanda eguna etorri,
jendea zegon auldua,
laguntzarik ez inondikan da
itxaropena galdua;
etsaiak bazun naikoa gauza
inguruetan bildua...
Ikusten zan ba azken ordua
zeukatela urbildua.

7 Ikusirikan nola zetozen
ordu estu ta larriak,
azken batzarra egiña zuten
bildurik agintariak.
Batzar artatik altxatu ziran
arturik asmo berriak;
beste biderik etzan ikusten,
baizik zabaldu atiak.


8 Baño Iñazio'k burua jasoz
erantzun zuan onela:
"Ager dezagun denon aurrean
gudari onak gerala;
ain bildurgarri al zaigu bada
eriotzaren itzala?
Aupa mutillak! jaso biotzak
orain artean bezela!"

9 Azpeitia'ko seme bizkorrak
piztu zitun ba lagunak,
alkar poztuaz biotzak pil-pil
berpiztu ziran geienak.
Ekin zioten gogor berriro
ain eroriak zeudenak,
baita izutu're egun batzutan
inguruko Prantzes denak.

10 Baño egunero indar berriak
Prantzesak zituzten artzen,
gatzelu gaña kañoi danbadaz
gogor ai ziran urratzen.
Iñazio'ri belaun ezurra
antxe diote puskatzen;
ta biotz-miñez ikusi bear
etsaiak aurrera sartzen.

11 Sartu ziran da barrengo danak
arturik beren mendean,
zauritutako gudari ura
berexiz txoko batean
saiatu ziran gogoz sendatzen
al zuten era onenean;
ta askoz obeto, besten aotik
nor zan jakin zutenean.

- 12 Maitekor eta goxo lagunduz
bere zauriak sendatzen;
bear bezela osatu zedin
etxera dute bialtzen;
bide zakarrik igaro gabe
lagunak zaizka saiatzen...
Iñazio'ren gudako lanak
betiko dira bukatzen.



Bide onera


- 13 Iruña'tikan Azpeiti'raño
nola zan bide luzea,
gerta zitzaion Iñazio'ri
zauri aiek gaiztotzea.
Ogei eta amar urte zituan
oraindik zegon gaztea...
Amets bakarra zuan buruan
gudarako sendatzea.

20 Liburu aiek irakurtzeko
arek etzeukan gogorik;
deabrua're urbil zebillen
gogoa pozoitu nairik.
Alaz guziaz artu zituan
etzegolako besterik...
Etzuan ordun ez Iñazio'k
etorkizunan berririk.

21 Nola arraiak uste gabe
iresten duan amua,
era berean sartu zitzaion
biotz barrenen gogua;
kezka txar danak utzi zitun da
bai argitu're zentzua,
ordun artu zun Jerusalem'a
iñoiz joateko asmua.

22 Jerusalem'a joan baño lendik
Monserrat nai zun ikusi,
naiz jauregian jaioa izan,
beartsu antzera bizi;
emen lurreko aunditasunak
denak bazterrera utzi...
Oartu gaiten liburu onez
zer gauza leizken ikasi!

23 Noiznai gauean loa utzita,
maiz jeikirik otoitzean,
ixil-ixilik nola egoten zan
oartu ziran etxean.
Eziñ-egona sortu zitzaion,
ta Jauna poztu naiean,
"Arantzazu'ra noa" esanaz
atera zan goiz batean.





Arantzazu, Monserrat...

- 24 Arantzazu'ko Aman oñetan
zerurontz jaso z biotza,
gau bat osoa igaro omen zun
apal egiñaz otoitza;
deabruaren errañuari
urrun nai bai'zion bultza,
orretarako eskatzen zion
Ama onari laguntza.

- 25 Jaun batengana joan bear zula
esanaz bere etxian,
bi morroi gazte eman zizkaten
ondo joan zedin bidian.
"Zoazte etxera biok!" esanaz
utzi zituan biderdian,
bere txanponak, geienak ere
zabalduz aien artian.

- 26 Andik aurrera bakarrik doa,
Monserrat bere ametsa,
edozein zoko on du beretzat
iritxitzean arratsa.
Oe goxo billa ez da saiatzen
naiago du leku latza;
zenbat alditan jarri oi zuan
maindire orde z arantzaz.

- 27 Etxetik irten baño lenago
artua zeukan asmoa,
soñeko merke zarpil zakar bat
bidean erostekoa;
galtzerdi gabe (espartziñakin
egiaña oñetakoa);
gauz oik buruan artu ondoren
pozez beterik dijoa.